

KOSTU EGITURA

Gure proiektua aurrera eramateko materiala, lokala, garraiobidea eta bestelakoak erosi beharko ditugu. Hori zenbat kostatuko zaigun kalkulatzeko, unitate bakarra sortzeko izango ditugun kostuak kalkulatu ditugu. Horretarako, bi kostu mota izan ditugu kontuan: kostu finkoak eta kostu aldakorrak.

Kostu finkoen barruan lokalaren prezioa, garraiobidearen prezioa, langileen soldata eta produktuak sortzeko beharrezkoak diren zenbait erreminten prezioa kontuan hartu dugu. Lokalaren prezioaren kasuan 690€ inguruko lokal bat alokatzea pentsatu dugu eta garraiobidearen kasuan furgoneta ertain bat alokatuko dugu eta 650€ inguru kostatuko zaigu. Langileen soldataren kasuan, bost langile izango ditugu eta hasiera batean 1.500€ euroko soldata ezarriko diegu. Bukatzeko, erreminten kasuan zulagailu bat, bihurkin bat eta eskailera bat beharrezkoak izango ditugula iruditu zaigu eta hiruren prezioa batuta 270€ gastatuko ditugula aurreikusi dugu. Hau guztia kontuan hartuta esan dezakegu kostu finkoen prezioa 9110€-koa izango dela.

Kostu aldakorren barruan produktua ekoizteko beharrezkoak izango diren hainbat material kontuan hartu ditugu. Kasu honetan, kontuan hartu behar da produktu bat egiteko material berdinen hainbat unitate behar izango ditugula eta hori prezioan eragina izango duela; izan ere, produktua bi sekzioetan banatuta egongo da, bakarrik arbel osoa garbitzeko aukera egon beharrean, erdia bakarrik garbitzeko ere aukera izateko. Horren ondorioz, bi motor, 1 m-ko zortzi metalezko barra, proiektorearentzako bi toldo, 2 m-ko metalezko bi barra laukiar, bi bomba hidrauliko, bi likido garbitzaile (kasu honetan lau erosi ditugu, bezeroei likido garbitzailea gastatzen bazaie, gehiago erosteko aukera dutelako), 55cm-ko zortzi goma eta router bat beharko dugu. Gehiengo baliabideak 16€ eta 50€ artean balio dute, baina motorra, routerra edo bomba hidraulikoa bezalako gauzak 100€-tik gorako prezioa dute. Ondorioz, unitate bakar bat ekoizteko kostu aldakorren balioa 1224€-koa izango da.

Kostu aldakorrak eta kostu finkoak kontuan hartzen baditugu, unitate bakar bat egiteko 10334€ gastatuko ditugula aurreikusi dezakegu. Behin hau kalkulatu, produktua ikastetxe baterako ekoitzi beharko bagenu zenbateko kostua izango genuke kalkulatu dugu. Horretarako, Armentia Ikastolako DBH eta Batxilergoko klaseak kontuan hartu ditugu, hobeto kontrolatzen ditugunak direlako. Hau kontuan izanda, 16 unitate ekoitzi beharko genituela kalkulatu genuen eta horretarako 28953€ beharko genituela ondorioztatu genuen.

Hau guztia kalkulu-orri honetan zehatzago adierazi dugu:

<https://docs.google.com/spreadsheets/d/17IrTwg-nalxk7hkUzCKNR6J9zng6ppWZHf5AE90strQ/edit?usp=sharing>